Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2018ko abuztuaren 27a, astelehena — 164 — Lunes, a 27 de agosto de 2018

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK — 1 — DISPOSICIONES GENERALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO, LANDA INGURUNEKO ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUA

*0465 LI/2018 Foru Agindua, abuztuaren 20koa, 2018an Gipuzkoan seinaledun karramarroaren arrantza arautzen duena.*

Espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako katalogoa arautzen dituen eta bertan seinaledun karramarroa (Pacifastacus leniusculus) jasotzen duen 2013ko abuztuaren 2ko 630/2013 Errege Dekretuan xedatutakoa betez, beharrezkoa da 2018an arrantzaren bitartez seinaledun karramarroa kontrolatzeko araudia ezartzea, hartara egungo banaketa esparrutik harago zabaldu ez dadin.

Horren haritik, 2018ko denboraldian Gipuzkoako Lurralde Historikoan arrantza kontinentalaren aprobetxamenduari buruzko Araudia garatzen duen 2018ko martxoaren 5eko 0144/LI/2018 Foru Aginduak (2018ko martxoaren 13ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 51. zk.), 11. artikuluan, ezartzen du dagokion Foru Agindu bidez onartuko dela Gipuzkoan seinaledun karramarroaren aprobetxamendua arautuko duen berariazko araudia.

Horregatik, arrantza aberastasunaren sustapena, kontserbazioa eta erazko aprobetxamendua arautzen dituen Ibaietako Arrantzari buruzko 1942ko otsailaren 20ko Legeak eta 1943ko apirilaren 6ko Dekretuz onartutako Erregelamenduak, nahiz 2014ko apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duenak, eta Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legeak ezarritakoa betez, beharrezko egiten da 2018an Gipuzkoako Lurralde Historikoan seinaledun karramarroa (Pacifastacus leniusculus) harrapatzeko araudia garatzea.

Horretarako, kontuan izan behar da Eusko Jaurlaritzaren 42/1985 zenbakiko Dekretu bidez eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren 21/1985 zenbakiko Foru Dekretuaren bidez –biak martxoaren 5ekoak–, gaiari buruzko transferentziak gauzatu zirela, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiola gai hau arau bidez garatzea.

Horren ondorioz, dagozkidan ahalmenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

2018an Gipuzkoako Lurralde Historikoan seinaledun karramarroa harrapatzeko araudia garatzea.

*1. artikulua. Geografia eremua.*

Egungo banaketa esparrutik haratago zabaldu ez dadin, debekatuta dago Gipuzkoako ibai sarean seinaledun karramarroa harrapatzea, Leitzaran ibaian izan ezik, Plazaola urtegiaren eta Ormaki tunelaren artean. Bertan, baimenduta dago seinaledun karramarroa harrapatzea, foru agindu honetan xedatutakoa betez.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, MEDIO RURAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

*Orden Foral 0465 LI/2018, de 20 de agosto, por la que se regula la pesca del cangrejo señal en Gipuzkoa durante el año 2018.*

De acuerdo con lo dispuesto en el Real Decreto 630/2013, de 2 agosto, por el que se regula el Catálogo español de especies exóticas invasoras, y en el cual se encuentra recogido el cangrejo señal (Pacifastacus leniusculus), se hace necesario establecer la normativa que regirá su control mediante el ejercicio de la pesca en el año 2018, evitando con ello su dispersión más allá de sus áreas de distribución actual.

En este sentido, el artículo 11 de la Orden Foral 0144/LI/2018, de 5 de marzo de 2018 por la que se desarrolla la normativa que regula el aprovechamiento de la pesca continental en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2018 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 51, de fecha 13 de marzo de 2018) establece que la normativa específica para el aprovechamiento del cangrejo señal en Gipuzkoa se establecerá mediante la correspondiente Orden Foral.

Por ello, en cumplimiento de lo dispuesto en la Ley de Pesca Fluvial de 20 de febrero de 1942, por la que se regula el fomento, conservación y ordenado aprovechamiento de la riqueza piscícola y el Reglamento aprobado por Decreto de 6 de abril de 1943, así como por lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/2014, de 15 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Conservación de la Naturaleza del País Vasco y la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, se hace necesario desarrollar la normativa reguladora de la pesca del cangrejo señal (Pacifastacus leniusculus) durante el año 2018 en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Teniendo en cuenta que tras producirse las transferencias por el Decreto del Gobierno Vasco número 42/1985 y el Decreto Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa número 21/1985, ambos de 5 de marzo, corresponde a esta última el desarrollo normativo en esta materia.

En consecuencia, haciendo uso de las facultades que me competen,

DISPONGO

Desarrollar la normativa reguladora para la captura del cangrejo señal en Gipuzkoa durante el año 2018.

*Artículo 1. Ámbito geográfico.*

Para evitar su dispersión más allá de su área de distribución actual se prohíbe la captura del cangrejo señal en toda la red fluvial guipuzcoana, con excepción hecha del tramo del río Leitzaran comprendido entre la presa de Plazaola y el túnel de Ormaki, donde queda autorizada su pesca de acuerdo con las disposiciones contenidas en la presente Orden Foral.

EK\CV GAO-I-2018-05832

*2. artikulua. Seinaledun karramarroa harrapatzeko behar diren agiriak.*

1. 1997ko urriaren 7ko Dekretuaren arabera (1997ko urriaren 23ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 203. zk.), Euskadin ibai arrantza egin ahal izateko behar diren agiriak honako hauek dira:

— Ibai arrantzarako baimen autonomikoa.

— Dagokion urteko tasaren ordainagiria.

— NA edo pasaportea, eta 16 urte baino gazteagoen kasuan, haien nortasuna frogatzen duen edozein agiri.

2. Bestalde, seinaledun karramarroaren arrantzaren berezitasuna dela eta, nahitaezkoa da horretarako baimen bat lortzea. Baimen hori pertsonala eta besterenezina da; Gipuzkoako Arrantza Federazioaren bidez kudeatuko da, eta baimendutako datan soilik erabili ahalko da.

3. Seinaledun karramarroa harrapatzeko baimenarekin, baimenduta dago ibilgailu motordunekin Plazaola bidean sartzea eta ibiltzea, 15:30etik 20:30era bitartean. Baimenik gabekotzat hartuko dira ordutegi horretatik kanpo ibilgailu motordunekin dabiltzan arrantzaleak, eta zigortu egin ahalko dira, 2011ko maiatzaren 20ko Foru Aginduan ezarritakoaren arabera, bertan arautzen baita zer erabilera eta jarduera baimenduko diren Leitzarango haranean barrena doan Plazaolako bidean, eta baimenak zer prozeduraren arabera emango diren (2011ko ekainaren 1eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 103. zk., argitaratutakoa).

*3. artikulua. Arrantza tresnak eta elementu lagungarriak.*

1. Seinaledun karramarroa harrapatzeko baimendutako arrantza tresna bakarra sare-saskia da, gehienez 42 cm diametrokoa eta bi eraztun dituena ixteko gailurik gabe.

2. Arrantzale bakoitzak 3 sare-saski erabil ditzake gehienez.

3. Sare-saski «kalatuak» egokiro identifikatuta egongo dira, baimenaren titularraren izen-abizenekin.

*4. artikulua. Beitak.*

Soilik beita hilak eta freskoak erabiliko dira, inola ere ez deskonposizio egoeran daudenak. Debekatuta dago beiten hondakinak uretara botatzea edo ertzetan uztea, eta arrantzan aritu den pertsonak jaso egin beharko ditu, edukiontzi egoki batean uzteko edo etxera eramateko.

*5. artikulua. Arrantzarako aldiak, egunak eta orduak.*

1. Arrantzaldia: 2018an Leitzaran ibaian seinaledun karramarroa harrapatzeko arrantzaldia irailaren 1etik irailaren 30era bitartekoa izango da.

2. Arrantza egunak: Seinaledun karramarroa harrapatzeko arrantza egunak arrantzaldiko ostegun, ostiral, larunbat, igande eta jaiegun guztiak izango dira.

3. Arrantza orduak: Arrantza ordutegia 16:00etatik 20:00etara bitartekoa izango da.

*6. artikulua. Gehieneko harrapaketa kopurua.*

Ez dago eguneko harrapaketa mugarik seinaledun karramarroarentzat.

*7. artikulua. Gutxieneko neurriak.*

Ez dago gutxieneko neurririk seinaledun karramarroa harrapatzeko.

*8. artikulua. Neurri bereziak espezie exotiko inbaditzaileen Espainiako katalogoa arautzen dituen 2013ko abuztuaren 2ko 630/2013 Errege Dekretuaren inguruan.*

1. Seinaledun karramarroa 2013ko abuztuaren 2ko 630/2013 Errege Dekretuko espezie exotiko inbaditzaileen katalogoko espezie bat denez, haren harrapaketa aipatutako Errege Dekretuan ezarritakoaren araberakoa izan behar da.

*Artículo 2. Documentación necesaria para el ejercicio de la pesca del cangrejo señal.*

1. De acuerdo con el Decreto 216/1997, de 7 de octubre (*Boletín Oficial del País Vasco* n.º 203, de 23 de octubre de 1997), los documentos necesarios para poder ejercitar la pesca fluvial en el País Vasco son:

— Licencia autonómica de pesca fluvial.

— Justificante del pago anual de la tasa correspondiente.

— D.N.I. o pasaporte, y en el caso de los menores de 16 años, cualquier documento que acredite su personalidad.

2. Por otro lado, y dada la singularidad de la pesca del cangrejo señal, se establece la obligación de obtener un permiso para su ejercicio. Este permiso será personal e intransferible, será gestionado a través de la Federación Guipuzcoana de Pesca y únicamente podrá disfrutarse en la fecha autorizada.

3. Con el permiso de pesca de cangrejo señal se autoriza la entrada y circulación con vehículo a motor por la vía del Plazaola entre las 15:30 y las 20:30 horas. Las personas pescadoras que circulen con vehículo a motor fuera de ese horario se considerarán como no autorizadas y podrán ser sancionadas de acuerdo a lo establecido en la Orden Foral n.º 35 de 20 de mayo de 2011, de regulación de las autorizaciones de usos y actividades a desarrollar en el Camino del Plazaola a su paso por el Valle de Leitzaran y del procedimiento para su concesión, publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 103, de 1 de junio de 2011.

*Artículo 3. Artes de pesca y elementos auxiliares.*

1. El único arte de pesca autorizado para la captura del cangrejo señal es el retel con un máximo de 42 cm de diámetro y dos aros como máximo, sin ningún dispositivo de cierre.

2. A cada persona pescadora se le autoriza un máximo de 3 reteles.

3. Los reteles «calados» estarán identificados con el nombre y los apellidos de la persona titular del permiso.

*Artículo 4. Cebos.*

Únicamente se autoriza la utilización de cebos muertos y frescos, en ningún caso en estado de descomposición. Se prohíbe tirar los restos de los cebos al agua o dejarlos en las márgenes, debiendo la persona que practique la pesca recogerlos para depositarlos en un contenedor adecuado o llevarlos a su domicilio.

*Artículo 5. Periodos, días y horas hábiles.*

1. Período hábil: El período hábil para la pesca de cangrejo señal en el río Leitzaran durante el año 2018 será el comprendido entre el 1 de septiembre y el 30 de septiembre.

2. Días hábiles: Los días hábiles para el ejercicio de la pesca del cangrejo señal son todos los jueves, viernes, sábados, domingos y festivos dentro del período hábil.

3. Horas hábiles: El horario de captura será desde las 16:00 horas hasta las 20:00 horas.

*Artículo 6. Número máximo de ejemplares capturados.*

No se establece ningún límite diario de capturas para el cangrejo señal.

*Artículo 7. Tallas mínimas.*

No se establece ningún tamaño mínimo de captura para el cangrejo señal.

*Artículo 8. Medidas específicas en relación al Real Decreto 630/2013, de 2 de agosto, por el que se regula el Catálogo español de especies exóticas invasoras.*

1. Dado que el cangrejo señal es una especie incluida en el Catálogo de especies exóticas invasoras del Real Decreto 630/2013, de 2 de agosto, su captura ha de ajustarse a lo establecido en el citado Real Decreto.


EK\CV GAO-I-2018-05832

2. Ezingo da inola ere uretara itzuli bizirik dagoen seinaledun karramarrorik, eta berehala hil beharko dira harrapatutako karramarro guztiak, natura ingurunean zabaldu ez daitezen bermatzeko.

*9. artikulua. Neurri bereziak zebra muskuiluaren (Dreissena polymorpha) inguruan.*

1. Sare-saskiak zebra muskuilua zabaltzeko elementu oso arriskutsuak direnez, eta espezie hori ere 2013ko abuztuaren 2ko 630/2013 Errege Dekretuan exotiko eta inbaditzaile gisa jasota dagoenez, arrantza tresnak desinfektatuta daudela oso-osorik ziurtatzeko, Leitzaran ibaian seinaledun karramarroa harrapatzeko baimen bat lortzen duten arrantzaleek, nahitaez, Gipuzkoako Arrantza Federazioak sare-saskiak desinfektatzeko Andoainen duen gunera joan beharko dute, arrantzan hasi aurretik.

2. Aurreko puntua betetzen ez bada, titularrak denboraldi honetarako bere izenean lortutako seinaledun karramarroa harrapatzeko gainerako baimenak bertan behera utziko dira, zigor espediente bat ireki ondoren, arau hauste administratiboa dela eta.

*10. artikulua. Harrapaketa partea.*

1. Harrapatutako karramarroen datuak karramarroak harrapatu eta berehala jaso beharko dira, arrantzaleari arrantza baimenarekin batera emango zaion partean.

2. Nahitaez, harrapaketa parte hori Gipuzkoako Arrantza Federazioari emango zaio, baimena erabili den egunetik, gehienez, 15 eguneko epean, baita ezer harrapatu ez bada ere, edota baimena erabili ez bada ere.

*11. artikulua. Arrainen bizitza babestea.*

Seinaledun karramarroaren arrantzan, aplikagarriak dira 2018ko denboraldian Gipuzkoako Lurralde Historikoan arrantza kontinentalaren aprobetxamenduari buruzko Araudia garatzen duen 2018ko martxoaren 5eko 0144/LI/2018 Foru Aginduko 8 artikuluan ezarritako debeku guztiak.

*12. artikulua. Arau-hausteak.*

Foru agindu honetako preskripzioak betetzen ez badira, ez-betetze motaren arabera, Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legean aurreikusitako zigor araubidea ezarriko da, edo ehizako eta ibai arrantzako arau-hauste administratibo jakin batzuen kalifikazioa aldatu eta zigorren zenbatekoa handiagotzen duen 1989ko apirilaren 13ko 1/1989 Legean aurreikusitako araubidea.

*Azken xedapena.*

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

Donostia, 2018ko abuztuaren 20a.—Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako foru diputatua, ez dagoenez, Imanol Lasa Zeberio, Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko foru diputatua. (5832)

2. En ningún caso se podrá devolver al agua un ejemplar vivo de cangrejo señal debiendo ser sacrificados inmediatamente todos los cangrejos capturados para garantizar de este modo su no propagación por el medio natural.

*Artículo 9. Medidas específicas en relación con el mejillón cebra (Dreissena polymorpha).*

1. Puesto que los reteles son elementos de riesgo importantes en la propagación del mejillón cebra, especie también recogida en el Real Decreto 630/2013, de 2 de agosto, como exótica e invasora, y a fin de asegurar de forma fehaciente la desinfección de estas artes de pesca, las personas pescadoras que obtengan un permiso de pesca de cangrejo señal en el río Leitzaran deberán acudir obligatoriamente al punto de desinfección de reteles que dispone la Federación Guipuzcoana de Pesca en Andoain previamente al ejercicio de la pesca.

2. El incumplimiento del punto anterior supondrá la suspensión del resto de permisos de pesca de cangrejo señal que la persona titular haya obtenido a su nombre para la presente temporada, previa apertura de un expediente sancionador por infracción administrativa.

*Artículo 10. Parte de capturas.*

1. Los datos de los cangrejos capturados deberán ser reflejados inmediatamente después de la captura en el parte correspondiente que le será facilitado a la persona pescadora junto con el permiso de pesca.

2. Es obligatoria la entrega de este parte de capturas en la Federación Guipuzcoana de Pesca en el plazo máximo de 15 días desde la fecha del disfrute del permiso. Esta obligación afecta también a los permisos cuyas capturas fuesen nulas o a los que no se hayan disfrutado.

*Artículo 11. Protección de la Fauna Piscícola.*

En la pesca del cangrejo señal son de aplicación todas las prohibiciones establecidas en el artículo 8 de la Orden Foral 0144/LI/2018, de 5 de marzo de 2018 por la que se desarrolla la normativa que regula el aprovechamiento de la pesca continental en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2018.

*Artículo 12. Infracciones.*

El incumplimiento de las prescripciones incluidas en esta Orden Foral estará sujeto, dependiendo de su naturaleza, bien al régimen sancionador previsto en la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, de Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, o bien al régimen previsto en la Ley 1/1989, de 13 de abril, por la que se modifica la calificación de determinadas infracciones administrativas en materia de caza y pesca fluvial y se elevan las cuantías de las sanciones.

*Disposición Final.*

La presente Orden Foral entrará en vigor el día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 20 de agosto de 2018.—La diputada foral de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial, por ausencia, Imanol Lasa Zeberio, diputado foral de Gobernanza y Comunicación con la Sociedad. (5832)

EK\CV GAO-I-2018-05832